

BIZIAN GORA: ELBURUAK

ADISKIDETASUNA

1

Urteak joan eta etorri
aurrera doa burpila,
ustekabeen lepo gainera
a zelango urte pila!
Laguntza-eske gatoz,
Espiritua, zatoz!
Danok gabiltz zure bila.
Gure bizitzan azken etapa
onena izan dedila!

2

Urtez ta fedez lengoak gara,
danok alkarren antzeko,
mundu barrian galduta gabiltz,
ordua da alkartzeko.
Laguntza-eske gatoz,
Epiritua, zatoz!
Zeu zaitugu bitarteko,
Gu nagusiok Bizan Goran
adiskide izateko

FEDE-BIZITZA

1

Sasoi bateko Jainko Aundia
eta epaile ziurra,
beti egoan prest emoteko
saria barik, egurra.
Laguntza-eske gatoz,
Espiritua, zatoz!
Kendu deuskuzu bildurra.
Gaur badakigu Aitatxo dala,
zuzena, baina samurra.

2

Leenago bazan naiko agindu
ta legearen legea,
Bizian Goran ikasi dogu
dala maitasun-bidea.
Laguntza-eske gatoz,
Espiritua, zatoz!
Ez da beste bat ohea.
Zeu zara gero eta geiago
gure Jaun eta Jabea.

APOSTOLADUTZA

1

Zer jan-edango bizi gara gaur
eta zer irabaziko,
zarrago eta beartsuago,
bidurrez nun-noiz jausiko.
Laguntza-eske gatoz,
Espiritua, zatoz!
Gu ez gara alperriko.
Zu nigan bizi eta bazagoz,
ez naz alperrik biziko

Ainbat erako ezin ta ezak
berez datoz zartzaroan,
geure narrutik dakigu ondo
onek ze martxa daroan.
Laguntza-eske gatoz,
Espiritua, zatoz!
Artu gaizuz anparoan.
Zu nigan egiz egon bazagoz,
ez naz biziko paroan. A.
Martzel

2